

FONOGRAFIA

Ixiar Rozas-ek gidatutako laborategia

DANTZAN BILAKA

AZKUNA ZENTROA (Bilbo), 2019ko uztailak 5

10.00etatik 19.00tara

Koreo-grafia, mugimenduaren idazketa. Fono-grafia, ahotsa eta soinuaren idazketa, hizkuntzaren materia soinudunera eta harnas aparatua lotuta. Topaketa honetan, idazketa lan egiteko materialtzat hartuko dugu. Hainbat estrategien bidez testuak ekoiztuko ditugu, hizkuntza egoerak eta ariketak, ez da metodologia zehatz bat baizik eta idazketa praktika propioan oinarritutako pentsatzeko eta egiteko modu bat. Bakoitzaren sorkuntza prozesuarengatik, irudiengatik eta interesengatik ere zeharkatuko den idazketa.



Ixiar Rozas Elizalde (Lasarte- Oria, 1972). Idazlea. *Beltzuria*, nire azken lana, euskaraz idatzita eta lankidetzan gaztelerara itzulita, saiakera poetiko bat da, ahotsaren dimensio etiko eta estetikoak esploratzen duena. Nire idatziak bilaketa poetiko bat daukate, testu kritikoak eta eszenikoak, hainbat hizkuntzetan itzuli diren materialak dira. Hainbat izenburu: *Negutegia* (2006, 2009), *Beltzuria* (2014, 2017), *Ejercicios de ocupación. Afectos, vida y trabajo* (2015, co-editatua Quim Pujol-ekin). Modu praktikoan eta teorikoan lantzen ditut ahotsaren materialtasuna eta hizkuntza. Lan eszeniko eta soinudun batzuk: *Plastika* (2012, Mursego-rekin); *Errekan* (2014, VVAA, Azala); irakurketa segidak *Beltzuria 1-8* (2014-16); *Talka* (2015, Leve); *Al final todo sucede a la vez* (2016), *20.20* (2017, María Salgado-rekin).

Arte eta pentsamendu garaikide mintegi eta topaketak antolatzen ditut, batzuetan elkarlanean: *Periferiak* (2002-07), *En la Resonancia* (2011), *Arrakalatuta* (2014-15), *Proklama* (2014-19). Arte Ederretan Doktore (UPV/ EHU), egun hezkuntza artistiko irakasle naiz (Mondragon Unibertsitatea), Ikerketa eta Sormena Artean Masterra (UPV/ EHU) eta Idoia Zabaleta-rekin Azala espazioaren kide naiz proiektuaren hastapenetatik.